

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Hutsaren zuzenketa 2016ko aurrekontu orokorrean

Hutsa antzeman da 2016ko ekitaldirako aurrekontu orokorraren diru sarreraren egoeraren kapitulukako laburpenean (ALHAOren 150. zenbakia, 2015eko abenduaren 23koa). Horiek horrela, zuzendu egiten da hura ondoko era honetan:

Diru sarreraren egoeraren kapitulukako laburpenean honako hau dio: III. kapituluan, "tasak eta bestelako diru sarrerak, 34.660,00 euro"; IV. kapituluan, "transferentzia arruntak, 728.261,58 euro"; eta VII. kapituluan, "kapital transferentziak, 699.000,00 euro". Ostera, honela esan behar du:

III. kapituluan, "tasak eta bestelako diru sarrerak, 36.660,00 euro"; IV. kapituluan, "transferentzia arruntak, 723.761,58 euro"; eta VII. kapituluan, "kapital transferentziak, 701.500,00 euro".

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Santikurutze Kanpezu, 2016ko otsailaren 3a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO